Argazki galeria







Prentsari eskainitako azken elkarrizketa EGUNKARIArekin egin zuen 1991ko apirilean, eta Carlos Villagran zenak egin zuen argazki lana.

CARLOS VILLAGRAN

Lan guztien bilduma

Gehigarri honetarako erabili diren artxiboko irudi gehienak *Jakin* aldizkariaren inguruan sortutako Jakinzaleak taldeari esker bildu ziren, Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria dela-eta kaleratu zuen liburuxka baterako bilduak. EGUNKARIAko artxiboko argazkietarik asko, berriz, gazterik hil zen Carlos Villagran argazkilari donostiarrarenak dira.

Jakinzaleak taldeak, bestetik, prest du Santamariaren lan guztien bilduma eta azterketa kritikoa, eta argitaratzekotan da obra mardul hori, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Gehigarri honetarako bildu diren iritzi eta datu asko lan horretakoak dira.

Karlos Santamariaren soslaia, azkenik, Celes Otaño marrazkilariaren lana da.

Euskal Kontseilu Nagusiko sailburu zenean, Juan Carlos I.a Espainiako Erregearekin eta Andoni Monforte, Juan Ajuriagerra eta Jose Antonio Maturanarekin.

JAKIN

Karlos Santamaria oroituz

iritzia

Juan San Martin
Euskaltzaina

KARLOS SANTAMARIA adiskidearen heriotza tamalgarriak, oroitzapen asko dakarzkit nire burura. 60 hamarkada hasieran elkar ezagutu genuen Jose Miguel Zumalaberen bidez. Honen laguntzaz euskara ikasi berri eta gure hizkuntzaren alde lan egiteko prest. Oltra Molta Gipuzkoako Gobernadore frankista hark, gurasoen babespen soilean zeuden ikastolak larri ipini zituenean, Karlosengana jo nuen eta biok elkartu ginen Gipuzkoako Apezpikutegiaren babespean jartzeko, lartza idazkari nagusia zenaren laguntzaz. Zeren garai hartan indarrean zen konkordatoak elizari haurren eskolak eduki ahal izateko eskubidea ematen baitzion, eta horrela salbatu genuen ikastolen iraupena. Beti zuhur jokatzen zekien gizona zen Karlos, eta Burgosko epaiketa famatu hartan, hilzorira eraman zituztenegatik, berari eta Ruiz Jimenezi esker, Aita Santuarengana jo zuten eta honek barkamen eskaria luzatu Francori.

Karlos Santamaria, 1964. urtean, Euskaltzaindiko urgazle izendatua izan zen, eta 1970. ean, Euskaltzaindiaren Donostiako batzordekide jarri genuenetik harremanok gehitu genituen. Urte hortan hasi genuen, Zumalaberen zuzendaritzapean, *Etxegintza* hiztegiaren prestakuntza, baina Karlosen eskariz bateratsu eraman genuen ikastoletarako zortzi urte arteko *Ikastola* hiztegia [ikus *Euskera*, 1975. 7-153. orrialdeetan], nondik liburu bezala ale asko atera genituen, baina ordurako Euskal Hiztegi Analitikoari buruzko txosten bat aurkeztua zuen Euskaltzaindiko batzar batean [ikus *Euskera*, 1973. 167-172. orrialdeetan].

Ez zen hori euskaraz idazten zuen bakarra. Gainera, *Egan* aldizkarian ere baditu bi lan. Lehen partean gazteleraz eta bigarren partean euskaraz. *Zeruko Argia* asterokoan ere kolaboratu zuen, hala ere, ideia onak ematen eta euskararen alde gestio zuhurrak egiten gehiago lagundu zigun, eta horien ordainez, 1993. urtean Euskaltzaindiak Ohorezko Euskaltzain izendatu zuen.

Garai berean, Bourdeleko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren artean, Donibane Lohizunen, Udako Euskal Unibertsitatea sortu genuenean ere han zen klaseak ematen. Baina ahantzi ezinezkoa iruditzen zait Donostiako Santo Tomas Lizeoaren irekiera Karlos Santamariari eta Jose Miguel Zumalaberi sor zaiela beste inori baino lehen.

Trantsizioan, Euskal Kontseilua sortu zenean hezkuntza kontseilari izendatua izan zen. Ni, ordea, Ezeiren eskariz, kultura Kontseilaritzan Kultura Sailaren arduradun. Beste eginkizun batzuen artean, Parisen Renné Duma bisitatu nuen eta Picassoren Gernika Gernikara ekartzeko bidea ireki. Karloseri aditzera eman nion, baina honek ilun ikusten zuen, zeren alderdikide gehienek arte era hura ez baitzuten gogoko. Atan horretan denbora aurrera, eta bitartean, Euskal Kontseilu berria jarri zen. Jo nuen ahalik gorenera, baina horiek, Gotzon Olartek Kultur kontseilari berriarekin mintzatzera igorri eta honek ezin ulertu. Hor gelditu zen nire ahalegina noraezean.

Humanismoak ez du izan gure artean harrera gehiegirik, baina hori ezin uka Karlos Santamariari. Horren lekukorik egokien bezala, hor dugu bere azken lanetako bat: *La amenaza de guerra nuclear*, (Donostian, 1985ean) deritzan liburua. Zoritxarrez, gizarteak urri ematen dituen gizonetariko bat genuen, eta guk holako beharra. Zerurik baldin bada, fede zintzoa zuen gizona han izango den ustea dut. G.B. ✗